

# Santanazaleen Esku-dantza



Aurten 500 urte bete dira Santa Ana Kofradiako Ordenantzak onartu zirela, seguru asko Euskal Herrian dirauen gisako entitate zaharrenetakoa izanik. Hiru urte lehenago, 1512ko martxoaren 18an, sute handia izan zen Ordizian eta Juana Erreginak asteazkenetan azoka egiteko baimena eman zion herriari. Gainera, garai bertsuan jaio zen Andres Urdaneta herritar ospetsua.

Santa Ana Kofradiari lotuta ageri da "Santanazaleen esku-dantza", antzinako usadioa. Herriko jailetako ekintzarik berezi eta originalena da, eta gaur egun Kofradiaren agerpen bakarra.

Baina, zein izan zen Kofradiaren jatorria? Zer da eta zer esanahi du "Santanazaleen esku-dantzak"? Azter dezagun historia. 1908ko "Monografía Histórica de Villafranca de Guipuzcoa-ren" egile Carmelo Etxegarayk eta Serapio Mujikak, lehenik, eta, gerora, Leonardo Urteaga herritarrek, "Villafranca

de Oria 1950. Año Santo" aldizkarian idatzitako "La Cofradía de Santaneros" artikuluan, zera adierazten dute: herriko Udal Artxibategian, Kofradiako hiru liburutan, urteko bileren aktak jasotzen direla, 1509az geroztik. Aipaturiko hiru akta-liburuetatik bakarra gorde da gaur egun arte; hiruretan azkena, 1792an datatuta dagoena, hain zuzen. Aurreko biak sute batean erre ziren eta horiekin batera galdu ziren Kofradiako Ordenantzak.

Duela hogeit bat urte, Jose Garmendia Arruabarrena abade zaldibitarrek, iraganeko gertakizun korapilotsuak ikertu eta azalerratu zituenak, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibategian aurkitutako ohar bat azpimarratu zuen: "Año 1741. Juan Raimundo de Arteaga Lazcano, Alcalde de la Cofradía de Santa Ana contra D. Manuel Joaquín de Lasa y Aristizábal, alcalde y juez de la villa. Quiere entrometerse el Alcalde. Contiene Constituciones (1509)". Zaldibitarren ikerketak ez zuen helburutzat Kofradiaren ordenantzak berreskuratzea, baina galdutzat emandako Ordenantzekin egin zuen topo.


## Liblbidetarikoa

Santa Anari ohore eta distira egiteko ("en honra y gloria de la Señora Santa Ana, Madre de nuestra Señora (la Virgen María) y Abuela de Nuestro Señor") sortu zen Ordiziako Santa Ana Kofradia, eta "Santanazaleak" bezala da ezagunagoa. Ordenantzen goiburuan irakur daitekeenez, XVI. mende hasieran, 1509ko uztailaren 26an, onartu zituzten kofradiakideek ("los cofrades y cofradesas"), Ordiziako San Bartolome elizako goiko gelan bilduta.

1509ko Ordenantzak, aurreragoko Kofradia bat berritzeaz dihardute, eta gertaera hori Santa Ana Kofradiaren antzinasunaren erakusgarri da. Ordenantzen atalburuan honela irakur daiteke: "Estos son los capítulos que los cofrades de la Señora Sancta Ana, a servicio de Dios principalmente e secundariamente para la onra e provecho e conservación de sus animas de los Cofrades y Cofradía que nuevamente quieren instaurar e crear en la villa de Villafranca, protestando de tal lo que finieren e capitularen sea principalmente para en servicio de Dios e de la Señora Sancta Ana".

Ondoren datoz 16 ordenantzak eta, horietan irakur dezakegunez, gaixotasun eta heriotza egoeratan adiskidetasuna, anaitasuna eta laguntza eskaintzea ziren Kofradiaren izpiritu.

"Dentro de la iglesia de San Bartolomé de Erdizia, en la Cámara de arriba, que es de la Villa de Villafranca de la provincia de Guipúzcoa, a veintiséis días del mes de Julio del nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo de mil e quinientos e nueve años, este día estando juntos e asentados en la dicha cámara todos los cofrades e cofradesas de esta parte contenidas en la cofradía de la vendita Señora Sancta Ana, Madre de la Virgen gloriosa Nuestra Señora, y así, estando en presencia de los cichos cofrades e cofradesas, por mí Juan Ibáñez de Múgica, Escribano de la Reina Nuestra Señora....."



## Santanazaleen Esku-dantza

Zein izan daiteke usadiozko dantza bitxi honen esanahia?

1509.etik gaur egunera arteko Kofradiaren hiru liburuetan, ez zaio aipamen txikiarik egiten Santa Ana ondorengo egunean izaten esku-dantzari.

Ez aipatzea, zeri egotzi dakioke? Aurretik aipatu bezala, Kofradiaren izatea eta egitekoa, haren zaindari Santa Ana goraiatzea zen eta liburua ez dute besterik islatzen. Litekeena da urtero Kofradiako karguak berritzeak zekarren alaitasunaren eta pozaren seinalea izatea esku-dantza.

Bestetik, "esku-dantza" honek badu nahikoa pisu ordiziarrentzat. Eztei-ospakizunak, sakramentuzko izaera eta ofizialtasuna eman ohi die ezkonberriei, Elizaren eta Estatuaren izenean. Ezkonberriak ezagunak dira herritarren artean, baina, hala ere, zerbait dute faltan senar-emazte ordiziarrentzat hartuak izan daitezten: gizartearen aurrean aurkeztea eta zinezko agerpen ofizial bat egitea hain jaioerrian edo bizilekuan; alegia, "Esku-dantzan" parte hartzea.



# Esku-dantza de Santaneros



Cinco veces centenaria, este año se cumplen quinientos años de la aprobación de las Ordenanzas de la Cofradía de Santa Ana, probablemente una de las entidades de este tipo más antiguas que perduran en Euskadi. Este acontecimiento se produce tres años antes de que la villa fuera devorada por un terrible incendio el 18 de marzo de 1512 y que la Reina Doña Juana concediera a Ordizia el privilegio de su mercado de los miércoles. Y es contemporánea del más grande de los ordizianos, Andrés de Urdaneta, de cuyo centenario aún resuenan los últimos ecos.

E indisolublemente unida al devenir de la Cofradía de Santa Ana nos encontramos con la "Esku-dantza" de "Santaneros" de honda tradición, y que es, sin duda, el más original y singular de los actos festivos que se celebran en nuestra villa, y única actividad o manifestación de la Cofradía en nuestros días.

Pero, ¿cuál fue el origen de la Cofradía?... ¿Qué es y qué simboliza la "Esku-dantza" de "Santaneros"? Rastremos en la historia.

Carmelo Etxegaray y Serapio Mujika, autores de la monumental "Monografía Histórica de Villafranca de Guipúzcoa" en 1908, primero, y años más tarde el ordiziarra [Leonardo Urteaga](#) en el artículo que lleva por título "La Cofradía de Santaneros" publicado en la revista "Villafranca de Oria 1950. Año Santo" señalan que en el Archivo Municipal de la Villa se encontraban las actas de las reuniones anuales, que a contar, por lo menos desde 1509, constan en los tres libros de la Cofradía. Al tiempo que nos indicaban que las ordenanzas de la misma estaban recogidas en el primero de ellos. De los tres libros mencionados, que estos autores tuvieron la oportunidad de tener en sus manos, solamente se conserva uno que data del año 1792 y en el que contienen las actas desde dicho año, pues los anteriores se quemaron en un incendio y con ellos las Ordenanzas objeto de conmemoración.

Hace una veintena de años, el sacerdote zaldibitarra [José Garmendia Arruabarrena](#), a quien nunca podremos pagar su tenaz, callada y competente labor de desentrañar los más complicados vericuetos de nuestro pasado, toma nota de una ficha en el Archivo Diocesano de Pamplona que decía así: "Año 1741. Juan Raimundo de Arteaga Lazcano, Alcalde de la Cofradía de Santa Ana contra D. Manuel Joaquín de Lasa y Aristizábal, alcalde y juez de la villa. Quiere entrometerse el Alcalde. [Contiene Constituciones \(1509\)](#)". Cuando creíamos que nunca podríamos recuperar las ordenanzas en su total literalidad, en una investigación que no tenía en principio este objetivo, el sabio sacerdote zaldibitarra tuvo la dicha de encontrarse cara a cara con las mismas.

## Singladura histórica


La Cofradía de Santa Ana, llamada popularmente de "Santaneros", institución fundada ante todo "en honra y gloria de la Señora Santa Ana, Madre de nuestra Señora (la Virgen María) y Abuela de Nuestro Señor", está profundamente arraigada desde muy antiguo en Ordizia. Cuando menos, es de principios del siglo XVI, según lo prueba el hecho de que se aprobaron sus Ordenanzas el 26 de julio de 1509 que ratifican los "[los cofrades y cofradesas](#)" reunidos "dentro de la iglesia de San Bartolomé de Herdizia, en la Cámara de arriba", como se lee en el encabezamiento de las referidas Ordenanzas.

Da idea de la antigüedad de la Cofradía de Santaneros el hecho de que las ordenanzas de 1509, se refieren a otra Cofradía anterior, que pretenden renovar, tal y como nos refiere el citado encabezamiento "Estos son los capítulos que los cofrades de la Señora Sancta Ana, a servicio de Dios principalmente e secundariamente para la onra e provecho e conservación de sus animas de los Cofrades y Cofradía que [nuevamente](#) quieren instaurar e crear en la villa de Villafranca, protestando de tal lo que finieren e capitularen sea principalmente para en servicio de Dios e de la Señora Sancta Ana".

Y siguen, a continuación, las 16 ordenanzas, estatutos o reglas, dispuestas y aprobadas, por las que se regía la Cofradía. En ellas

quedaban reguladas el nombramiento del Capellán o clérigo de la misma, sus quehaceres, y la cuantía de la compensación económica a percibir por su labor; la asistencia a los actos de culto "[Teniendo sus candelas encendidas en las manos, así los Cofrades, como las Cofradesas](#)" de la Cofradía y las sanciones en que incurrieran Cofrades y Cofradesas en caso de no cumplir lo establecido; el protocolo a seguir en el nombramiento de nuevos mayordomos y en el traspaso de poderes anual entre los mayordomos salientes y entrantes; y el procedimiento dispuesto en la admisión de nuevos cofrades y cofradesas.

Por lo que leemos en las Ordenanzas, animaba a la Cofradía un espíritu de compañerismo, hermandad y auxilio que se hacía patente en disposiciones que prevén la asistencia en todos los casos de enfermedad y muerte.



Y al fin de las ordenanzas, y de la aprobación y confirmación de las mismas por la Autoridad eclesiástica, transcribimos su ratificación de todos los cofrades y cofradesas. "[Dentro de la iglesia de San Bartolomé de Erdizia, en la Cámara de arriba, que es de la Villa de Villafranca de la provincia de Guipúzcoa, a veintiséis días del mes de Julio del nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo de mil e quinientos e nueve años, este día estando juntos e asentados en la dicha cámara todos los cofrades e cofradesas de esta parte contenidas en la confradía de la vendita Señora Sancta Ana, Madre de la Virgen gloriosa Nuestra Señora, y así, estando en presencia de los cichos cofrades e cofradesas, por mí Juan Ibáñez de Múgica, Escribano de la Reina Nuestra Señora.....](#)" y sigue un poder original de los maridos de las cofradesas, extendido por objeto de autorizar a éstas para que puedan cumplir todo lo que se dispone y manda en los diversos artículos.

## Esku-dantza de Santaneros

¿Y cual puede ser la significación de este curioso y tradicional baile de los Santaneros?

En los tres libros de la Cofradía, desde 1509, hasta nuestros días, no aparece ni el más leve inciso que hable de la "Esku-dantza" que por costumbre inmemorial, sin duda, suele tener lugar el día segundo de Santa Ana.

¿A qué se puede atribuir esta omisión? Desde luego, la misión y el carácter de la Cofradía era, como hemos señalado, honrar y celebrar las glorias de su Patrona y los libros no reflejan más que lo que está relacionado con este fin. El aurreSKU era seguramente una de las manifestaciones externas de la euforia y de la alegría con que rodeaban entonces tal acontecimiento, como el de la renovación anual de los cargos de la Cofradía.

Es evidente que la ceremonia nupcial les ha conferido a los nuevos cónyuges el carácter sacramental y la oficiosidad que el sacerdote y el juez suelen conferir en nombre de la Iglesia y el Estado. Todo el mundo conoce en el pueblo a estas nuevas parejas; pero diríase que a estos recientes matrimonios, no obstante les falta algo importante aún para ser consumados matrimonios ordizianos: les falta su presentación pública en sociedad, su comparecencia oficial y solemne ante el mismo pueblo de que son naturales o vecinos, al que pudiéramos llamar "asenso popular".





# 0 Sokaren konposizioa

## Composición de la cuerda

Soka, uztailetik uztailera (Santanazale urteko) ezkonduetako bikoteekin osatuko da. Hurrenkera ondorengoa izango da: Alkatea / aurrekua / 1. maiordomoa / 2. maiordomoa / ... / 3. maiordomoa / 4. maiordomoa / atzeskua.

La cuerda se compondrá con los recién casados durante el año Santanero (de Julio a Julio). El orden de colocación será el siguiente: Alcalde / aurreku / 1er mayordomo / 2º mayordomo / ... / 3er mayordomo / 4º mayordomo / atzesku

# 1 Plazara irteera

## Salida a la plaza



1949 urtea



1961 urtea

Udaletxeko batzar aretotik irtengo da soka, plazarantz, Desafioaren soñua entzuten dela, alkatea lehenik (aginte-makila eskuan), aurrekua bigarrenik eta atzeskua atzendari doazela (azken biak, txapela buruan). Soka, erloju orratzen aurkako norabidean sartuko da plazara eta buelta erdi emango dio.

A los sonos del Desafío salen a la plaza desde el Salón de Plenos del Ayuntamiento en primer lugar el alcalde (bastón de mando en mano), en segundo lugar el aurrekulari y en último lugar el atzeskulari, éstos con txapela puesta. La entrada a la plaza se hará en sentido contrario a las agujas del reloj y se trazará una media vuelta.

# 2 Agintearen ordezkapena

## Cese de mando



1964 urtea



1980 urtea

Aurreskuak eta atzeskuak txapela kenduko dute.

Alkateak agintea emango dio aurrekuari, aginte-makilaren buruarekin ezkerreko sorbalda ukituz lehenik eta eskuinekoa gero. Une horrexetan, Desafioaren doinuetan jarraituz Alkatea udaletxeko balkoira igoko da. Sokak bitartean buelta osoa emango dio plazari.

El aurreku y el atzesku se descubren las cabezas. El alcalde tocará el hombro izquierdo en primer lugar y el derecho en segundo con la cabeza del bastón de mando para ceder el mando al aurreku.

Al cederle el alcalde el mando al aurreku, continuando a los sonos del Desafío el alcalde subirá al balcón del Ayuntamiento mientras la cuerda sigue su curso hasta llegar la misma a colocarse de frente al ayuntamiento (una vuelta completa).

# 3 Alkateari agurra

## Saludo al alcalde



1950 urtea



1954 urtea

Alkatea udaletxeko balkoian eta soka udaletxearen parean dagoenean, aurrekua plaza erdira parreratuko da eta alkateari agur egingo dio Desafío erdia dantzatuz (lasterka jirakoak barne).

Cuerda en frente del ayuntamiento y alcalde presente en el balcón, se adelantará al centro de la plaza el aurrekulari y bailará el saludo al alcalde (Desafío hasta las carreras con vuelta incluidas).



## 4 Lehen zubia - Primer puente

Atabalariaren tarrapata doinuz, aurrekuak lehen zubia hasiko du. Zubia aurretik atzera gidatuko du aurrekuak eta soka hasierako lekura itzultzean bukatuko da.

Bajo el sonido del redoble del atabalero, se trazará el primer puente de adelante a atrás de mano del aurreku. El puente finaliza al volver la cuerda a la posición de origen.

## 5 Lehen desafioa - Primer desafío

Aurrekua eta atzesku plaza erdian kokatuko dira eta, aurrez aurre jarrita, Desafioa dantzatuko dute.

Colocados frente a frente en el centro de la plaza, el aurreku y atzesku bailarán el Desafío.



1955 urtea



1966 urtea



1978 urtea



1998 urtea



2007 urtea

## 6 Bigarren zubia - Segundo puente

Atabalariaren tarrapatarekin, bigarren zubia egingo da, atzetik aurrera, atzeskuak gidatuta. Zubia hasierako lekura iristean amaituko da eta aurrekuak eta atzeskuak txapela jantziko dute.

Al redoble del atabalero, se trazará el segundo puente de atrás a adelante de mano del atzesku. Terminado el puente en su posición de partida el aurreku y el atzesku se cubrirán las cabezas.



2007 urtea



1981 urtea





7

# Lehen damaren sarrera eta agurra

## Entrada primera dama y saludo

Esku-dantzaren hasieratik udaletxeko balkoian dantza saioa ikusten dauden emakumeei sarrera emateko momentua da.

Agurra melodiarekin, sokako lau maiordomoak lehen damaren bila abiatuko dira udaletxera, sokaren noranzko berean, karratu formako eta maiordomo aurrendariak gidari diren egituran, sokak plazan hiru laurdeneko buelta ematen duen bitartean.

Maiordomoak, aureskuaren bikote izango den lehen dama erdian dutela, plazan sartuko dira, atzeskuaren atzetik eta sokaren noranzko berean; sokaren atzetik pasatu eta bikotea aureskuari aurrez aurkeztuko diote, udaletxeari bizkar emanda.

Aureskuak Agurra dantzatzuko dio bere bikoteari.

Agurra amaitzean, aureskua sokara itzuliko da eta maiordomoek dama lagunduko dute sokan sartzera (sokaren aurre aldetik). Aureskuaren jarraian eta zapi artean sartuko da.



1949 urtea



1950 urtea



1957 urtea

Es el momento de hacer entrada a las damas que desde el principio de la esku-dantza se sitúan en el balcón del ayuntamiento.

Cambio de melodía y a los sonos de la Reverencia (Agurra) los mayordomos irán en busca de la primera dama en figura cuadrada y en sentido de la cuerda encabezado por los primeros mayordomos, mientras ésta traza tres cuartos de vuelta.

Posicionada la primera dama en el centro de los mayordomos harán su entrada en la plaza por detrás del atzesku (en sentido de la cuerda) para presentarle al auresku por delante y ponerse a espaldas del ayuntamiento, donde el auresku le bailarà la Reverencia.

Terminada la reverencia el auresku volverá a la cuerda y los mayordomos acompañarán a la dama a incorporarse de frente en la cuerda detrás del auresku entre pañuelos.



1959 urtea



1958 urtea



1989 urtea

# 8 Bigarren damaren sarrera eta agurra

## Entrada segunda dama y saludo

Agurraren doinuak. Lau maiordomoak udaletxera abiatuko dira bigarren damaren bila, sokaren aurkako noranzkoan (atzendari diren maiordomoak gidari) eta sokaren atzetik pasatuz. Bitartean sokak buelta emango dio plazari, atzeskua udaletxe parera iritsi arte.

Maiordomoak, atzeskuaren bikote izango den bigarren dama erdian dutela, plazan sartuko dira, sokaren aurkako noranzkoan; sokaren atzetik pasatu eta atzeskuari aurkeztuko diote dama, udaletxearen aurrez aurre.

Atzeskuak Agurra dantzatzuko dio bere bikoteari.

Agurra amaitzean, atzeskua sokara itzuliko da eta maiordomoek bikotea lagunduko dute (sokaren aurre aldetik), atzeskuaren aurretik zapi artean sartzera.



1952 urtea



1963 urtea

Continuando a los sonos del Agurra, los mayordomos en posición, encabezado por los mayordomos postreros, irán en busca de la segunda dama al ayuntamiento en sentido contrario a la cuerda y pasando por detrás de ella.

Con la segunda dama al centro, los mayordomos harán su entrada a la plaza por detrás del auresku (en sentido contrario de la cuerda) para presentarle al atzesku por delante y de frente al ayuntamiento, donde el atzesku le bailarà la Reverencia.

Al terminar el atzesku la Reverencia se incorporará a la cuerda. Los mayordomos acompañarán a la dama a colocarse de frente a la cuerda por delante del atzesku entre pañuelos.



1960 urtea



1982 urtea



## 9 Gaiñontzeko damen sarrera

### Entrada demás damas

Bigarren erreberentzia amaitu da. Agurraren doinuarekin jarraituz, lau maiordomoak udaletxera abiatuko dira zuzenean, gainontzeko damen bila.

Maiordomoak, damak lerrokatuta erdian dituztela, plazara sartuko dira, sokaren aldeko noranzkoan, sokaren atzetik, eta zapi artean sartuko dituzte, aurrekutik hasi eta atzeskura bitartean.

Terminada la segunda Reverencia y continuando a los sonos del Agurra, los mayordomos irán en busca de las demás damas presentándolas al salir a la plaza por detrás de la cuerda comenzando por la parte del aurreku hasta el atzesku.



1956 urtea



1959 urtea



1998 urtea

## 10 Hirugarren zubia - Tercer puente

Atabalariaren tarrapata. Aurrekuak eta lehen damak hirugarren zubia egingo dute eta horiek eutsitako zapiaren azpitik igaroko da atzekua. Zubia soka hasierako posiziora itzultzean bukatuko da.

Al redoble del atabalero se trazará el tercer puente a cargo del atzesku que pasará por debajo del pañuelo alzado entre el aurreku y la primera dama. El puente finaliza al volver la cuerda a la posición de origen.



1987 urtea



1992 urtea



1995 urtea

## 11 Bigarren desafioa - Segundo desafío

Desafioaren doinua, berriro. Hirugarren zubia amaitzean, soka udaletxeari bizkar emanda dagoela, aurrekua eta atzeskua plaza erdirantz abiatuko dira eta bigarren Desafioa dantzatuko dute.

Finalizado el tercer puente y con la cuerda a espaldas al ayuntamiento, el aurreku y el atzesku ejecutarán el segundo desafío.



1959 urtea



1961 urtea



1995 urtea



# 12 Laugarren zubia

## Cuarto puente

Atabalariaren tarrapata. Laugarren zubia. Atzeskuak eta bigarren damak zapiarekin zubia egin eta aurreskuak zapiaren azpitik igaroko da. Zubia soka hasierako posizioa itzultzean bukatuko da.



1958 urtea



1961 urtea

Al redoble del atabalero se trazará el cuarto puente a cargo del aurresku que pasará por debajo del pañuelo alzado entre el atzesku y la segunda dama. El puente finaliza al volver la cuerda a la posición de origen.



# 13 Zortzikoa edo saltokakoa

Aurreskuak lehenik eta atzeskuak gero, saltokakoaren lehen zatia dantzatuko diete haien bikoteei, gora jasotako zapitik helduta; atzeskuak azken deia ere dantzatuko du.

Primeramente el aurresku y seguidamente el atzesku le bailarán el zortziko (Saltokakoa) a su dama correspondiente con el pañuelo alzado; el atzesku finalizará marcando la llamada final.



1950 urtea



1952 urtea



1957 urtea



1959 urtea



1971 urtea



1977 urtea



1983 urtea



1987 urtea



# 14 Fandango eta Arin-arina

Plazako ekitaldiari amaiera emateko, soka korroan jarri, gizonezkoek zapiak gorde eta denek fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dituzte.

Para finalizar el acto de la plaza, todos los componentes de la cuerda bailaran el Fandango y el Arin-arin en corro.



1956 urtea



1956 urtea



1967 urtea



1979 urtea



1994 urtea



2007 urtea



# 15 Herriari itzulia Vuelta al pueblo

Soka berriz ere osatuko da, zapitik lotuta, eta Saltokakoaren doinuari jarraiki, hurrengo itzulia egingo du herrigunean zehar, udaltzainak aurretik bidea zabalduko duelarik:

- Kale Nagusia (Urdaneta kalerantz)
- Santa Maria kalea
- Barrena Jauregian geldialdia, fandangoa eta arin-arina dantzatzeko.
- Kale Nagusitik, udaletxeko batzar aretora.



1921 urtea



1948 urtea



1955 urtea



1999 urtea

Compuesta la cuerda entre pañuelos y a los sonos del Saltokakoa, se ejecutará el siguiente recorrido por el pueblo, donde el municipal irá abriendo paso:

- Calle Mayor (Dirección calle Urdaneta)
- Calle Santa María
- Parada en el Palacio Barrena (Fandango y Arin-Arin)
- Por la calle Mayor al ayuntamiento (Salón de Plenos).





# 16 Udaletxea- Ayuntamiento

Aurrekuak Agurra dantzatuko die alkateari eta partaide guztiei. Udalak esker oneko mokadutxoa eskainiko du.



1960 urtea



1988 urtea



1991 urtea



1993 urtea

El aurreku bailará el Agurra al alcalde y a todos los participantes. El ayuntamiento ofrecerá un aperitivo de agradecimiento.

# 17 Lehen eta bigarren damen etxeratzea

Entrega a casa de la primera y segunda dama



1948 urtea



1959 urtea



1958 urtea



1959 urtea



1960 urtea



1960 urtea

Soka berriz ere osatuko da, zapien bidez, eta Saltokakoaren doinupean, lehen eta bigarren damak etxera lagunduko ditu. Aurrekuak lehen damari eta atzeskuak bigarrenari Zortziko erdi bana dantzatuko diete etxeratzean. 70eko hamarkadaren erdialdera utzi zitzaion ohitura hori burutzeari.

Posteriormente y saliendo nuevamente la cuerda a la calle, procederán a la entrega en sus casas de la 1ª y la 2ª dama con previa ejecución del Zortziko por parte del aurreku a la primera dama y del atzesku a la segunda. Esta costumbre se dejó de ejecutar a mediados de la década de los 70.